

Bere denporaldirik onena zarratu dau Manu Quintanilla ziklo-kroslariak

Master50 kategoriako Igorreko txirrindulariak hamaika garaipen lortu ditu oingo ziklo-kros denporaldian eta bitan bakarrik geratu da podiumetik kanpo. Pentsaezina zala aurreko urtekoa errepikatutea baina hobetu egin daua, garaipen bi gehiagogaz, azaldu dau BEGITU txirrindulariak. Baina atzenengoan, Espainiako Txapelketan laugarren egin eban. **11. orrialdea**



Gontzal Mendibil, 50 urte kantagintzan



Zeanuriko abeslariak mende erditik gorako ibilbidea daroa gainean eta ospatuteko, kontzertu berezia eskainiko dau Arriagan hilaren 21ean. Musikeagaz izandako lehenengo hartu-emonetaz, bere ibilbide oparoaz, Arriagako kontzertuaz, Arratia eta Gorbeiak berarengan izan dauan pisuaz eta etorkizunaz egin deusku berba kantariak BEGITU. Izan be, kontzertua ez da agur bat izango, oindino be gogotsu dago-ta kantaria. **8. eta 9. orrialdeak**

IGORRE

Urtailaren 27an ebatziko da Kiñuren etorkizuna

Durangon egingo da Igorreko gaztetxearen eta Sabadell Bankuaren arteko epaiketea. Asanbladeak salatu dau, Sabadellek gaztetxea indarrez hutsitu gura daua eta eraikina urte askoz hutsik egongo dala. **5. orrialdea**

ARRATIA, UBIDE

Martiaren 27an pasauko da 24. Korrika guretik

Publiko egin da Korrikako ibilbidea eta Arratia eta Ubidetik martiaren 27an, bariku goiza, helduko da euskerearen aldeko ekimenik handiena. Usansolotik etorrita, zortzirak inguruan sartuko da Bediara eta Arratia kurrutatu ostean hamaika t'erdia inguruan helduko da Ubidera. **5. orrialdea**

ARRATIA

Bertso saio bana Igorren eta Zeanurin

Hilaren 18an Amets Arzallus, Andoni Egaña, Aner Peritz "Euzkitze", Nerea Ibarzabal, Unai Iturriaga eta Alaia Martin egongo dira aurten hogeta bigarrenaz ospatuko dan Zeanuriko bertso jaialdian. Igorren barriz, bertsoak eta musika elektronikoa buztartuko dira hilaren 24an, Miren Artetxe, Oihana Bartra eta Haizea Aranagaz. **12. eta 13. orrialdeak**

ENTZUTEN BADUZU

Bizitza gehiago da

Hobetu zure entzumena eta gozatu zoriontsu egiten zaituenaz.

Olaetxe
OPTIKA ZENTRUA


>eskatu zita 946 577 003

EKIN
erakundeak

LAN PUBLIKOAK
UR ETA SANEAMENTSU SAREAK
BASERRI ETA BASOKO BIDEAK
PABILOIAK ETA URBANIZAZINOAK

94 631 72 57
ekin@ekinsl.eus

Igorre (Bizkaia)



Literatura txokoa

EL AMANECER DE TODO

David Graeber-ek, estubatu an-
tropolgo anarkista (bere aitak,
Guda Zibilean, Aragoiko frontean
burukatu eban faxisten aurka) zen-
duak (oso egoera susmagarrian hil
zan nire aburuz), fama handia har-
tu eban, Occupy Wall Street (Wall
Street edo New York-eko Boltsea
okupau) mobimentuaren bultza-
tzaile nagusia izan zalako.

Liburu honetan Graeber-ek
iragan urruneko gizarteak berraz-
tertzen ditu eta aditu feministen
(Chris Knight, Sarah Hrdy, Camilla
Power, Marija Gimbutas eta abar)
teoriak modu bidebakoan bazter-
tuak berrikusten dauz, paleolitotik
ilustrazinora arteko giza gizarte-
en azalpen liluragarria sortzeako.

Gizakiaren historiaren ulermen
guztiz barria, gizarte eboluzioari

buruzko gure oinarritzko usteak
zalantzan ipinten dituana —neka-
zaritzearen eta urien garapenetik
hasi eta estatuaren, demokra-
ziaren eta desbardintasunaren
jatorrietaraino— eta gizakiaren
emantzipaziorako aukera barriak
agerian ixten dituana.

Belaunaldiz belaunaldi, gure ar-
baso urrunak primitibo eta haurtzat
hartuak izan dira —bai libre eta
bardin erubakoak, bai matxinoak
eta gerrazaleak—. Zibilizazioa,
esaten deuskue, jatorritzko askata-
sun horreek sakrifikaiz bakarrik lor-
eitekean edo, bestela, gure sena
bajuagoak baretuz. David Graeber
eta David Wengrow-ek erakusten
dabe zelan teoria horreek XVIII.
mendean sortu zirala lehen aldiz,
behatzale eta intelektual indige-

nek Europako gizartearen aurka
egindako kritika indartsuen aurrean
erreakzino konserbadore moduan.

Topaketa hau berrikusteak ondorio
harrigarriak ditu gaur egungo giza
historia zelan ulertzen dogun, ne-
kazaritzearen, jaubetzearen, urien,
demokraziaren, gerrearen, eskla-
butzearen eta zibilizazioaren be-
raren jatorria barne.

Adibide batez, ilustrazioaren
ideak Ameriketako indigenen
ideatetik datozela, zeharo txun-
digarria da edota andrak neka-
zaritza asmatu ebala edota herri
indigenek ez eben gura gure
bezalako gizarte egitura egin eu-
ren zoriontasuna eta askatasuna
gehiago baloratzen ebezalako eta
ez ekitelako sortzean gure moduko
gizarte patriarkal eta jerarkizaua.

Lehen gizakiek, Graeber-ek dino,
gizarte-partaidetza bardina ebela
—eta, beraz, politikoa— eta, gai-
nera, askatasun askoz handiagoa:
mobimentuarena, aginduak ez
betetekoa eta "errealidade sozial
egitura desbardinen artean aurre-
ra eta atzera mobidutekoa".

Hemen Euskal Herrian beti
pentsau izan dogu gure arbasoak
ez zirala tontoak, beti estimau
izan dogu eurek itxitako lurra, kul-
turea, lege zaharrak eta hizkun-
tzea. Antropologo honek arrazoi-
emoten deusku.



Davib Graeber eta David Wengrow

El amanecer de todo

Ariel, 2022

480 orrialde

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakoako Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako farmaziak

09:00etatik 22:00etara
Urtailaren 12tik 18ra
Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1
Tel.: 94 673 93 95 eta 620 262 937

22:00etatik 09:00etara
Sarasketa (17-23), 18. Amorebieta-Etxano.
Urtailaren 19tik 25era
Goikoetxea. Dima. Ugarana 33
Tel.: 94 673 70 54 eta 619 524 057

22:00etatik 09:00etara

Iruarizaga (24-30). Amorebieta-Etxano.
Urtailaren 26tik zezeilaren 1era
Andrea Lavin Abadia. Lemoa. Atubxa Sailburua 1
Tel.: 94 631 30 18 eta 652 733 820

22:00etatik 09:00etara
Gutierrez (31-6). Amorebieta-Etxano.
Zeberioak ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan. 22:00etatik 09:00etara
Cometza, Ana. Francisco Kortabarria 2. Basauri.
Tel.: 94 449 05 87

Medikuak

Arantzazu, Artea, Areatza, Dima,
Igorre eta Zeanuri: 94 600 74 63
Bedia eta Lemoa: 94 600 68 85
Ubide: 945 45 50 17

Zeberio: 94 500 67 95

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89
Artea: 94 673 92 05
Areatza: 94 673 90 10
Bedia: 94 631 42 00
Dima: 94 631 57 25
Igorre: 94 631 53 84
Lemoa: 94 631 30 05
Ubide: 945 45 03 22
Zeanuri: 94 673 91 46
Zeberio: 94 648 10 79

Arratiako Udalen

Mankomunitatea 94 631 17 17
mankomunitatea@arratia.eus

Gorbeialde Landa
Garapenerako Elkartea
94 631 55 25 / gorbeialde@gorbeialdea.com

Gertu bulegoa Igorre 94 406 80 00
Areatzako Parketxea 94 673 92 79
Igorreko Kultur Etxea 94 673 62 51
kulturetxea@igorre.net

Lemoako Kotxepin Kultur Etxea
kotxepin@lemoa.eus

Euskotren 94 433 33 33 / euskotren.eus

Areatzako Notariotza 94 673 92 26
Errota Fundazioa 688 854 543
info@errota.eus

Arratiako Musika Eskola
94 631 73 52 / www.arratiakomusikaeskola.eu

Bizkaibus 94 612 55 55

3917 linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Bilbotik. Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro. Jaiegunean orduro 07:15etik 22:15era.

Zeanuritik. Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan. Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era. Orduro: 06:45etik 21:45era. Atzen zerbitzua 22:00etan. Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan. Orduro: 05:45etik 21:45era. Jaiegunean: 07:45etik 21:45era orduro.

3911 Linea. Bilbo-Galdakao Ospitalea-Lemoa-Durango-Elorrio

Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 22:00etara orduro. Zapatu eta domeketan Durangoraino.

Elorriotik. Lanegunetan 06:45etik 20:45era orduro.

Durangotik. Lanegunetan: 07:10etik 21:10era orduro. Zapatuetan: 06:30etik 21:30era orduro. Jaiegunean: 07:30etik 21:30era orduro.

3912 Linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango-Ermua-Eibar

Bilbotik. Lanegunetan: 06:30etik 22:30era orduro. Jaiegunean: 07:30etik 22:30era orduro.

Eibartik. Lanegunetan: 06:00etatik 21:00etara orduro. Zapatuetan: 06:20tik 21:20ra orduro. Jaiegunean: 07:20tik 21:20era orduro.

3925 linea. Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Bilbotik. Lanegun, zapatu eta jaiegunean,

Otxandio: 06:45etik 20:45era orduro. Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordukin behin.

Ubide. Lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordukin behin. Jaiegunean: 08:45etik 20:45era bi ordukin behin.

*08:45ean, 14:45ean eta 18:45ean urteten diran zerbitzuak Barazaren gelditzen dira.

Otxandiotik urtekerak. Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro. Jaiegunean: 08:55etik 20:55era orduro.

3927 linea. Bilbo-Lemoa-Zeanuri (autopistatik)

Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro. Zapatu eta jaiegunean ez dago zerbitzunik.

Zeanuritik. Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro. Zapatu eta jaiegunean ez dago zerbitzunik.

3928 linea. Artea-Zeberio-Ugao Zeberiotik Ugaora.

Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 08:20, 09:10*, 11:00; 11:45*, 14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20.

*Basauriraino bakarrik.

Basauritik Zeberiora. Lanegun eta zapatuetan: 10:00, 12:45*, 19:20.

*Artearaino bakarrik.

Ugaotik Zeberiora. Lanegun eta zapatuetan: 07:20, 08:40, 10:20, 11:20, 13:05, 14:30, 15:30, 16:30, 19:40, 20:40.

Arteatik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 06:50, 08:00, 14:00, 16:00.

Ugaotik Arteara. Lanegun eta zapatuetan:

13:05, 15:30, 20:40.

Igorretik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 07:55ean.

Ugaotik Igorrera. Lanegun eta zapatuetan: 07:20ean.

Zeberiotik Arrigorriagara. Jaiegunean: 08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arrigorriagatik Zeberiora. Jaiegunean: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11

A3712 linea. Bilbo-Gasteiz
Lanegunetan: 06:45ean eta 08:45ean urteten dau Bilbotik. Zapatuetan: 08:45ean urteten dau. Jaiegunean: 10:30ean urteten dau.

A3712 linea. Gasteiz-Bilbo
Lanegunetan: 15:15ean eta 16:15ean urteten dau Gasteizetik. Zapatuetan: 16:30ean urteten dau. Jaiegunean: 16:30ean urteten dau.

Eskualdeko garraioa. Erreserbak 945 18 20 60

6A linea. Otxandio-Legutio
Lanegunetan: Ubiden 06:35ean, 07:15ean, 09:20an, 11:20an, 14:45ean, 15:25ean, 17:15ean eta 20:25ean. Astegoen eta jaiegunean: 08:45ean, 11:55ean, 16:40an eta 18:40an.

6A linea. Legutio-Otxandio
Lanegunetan: Ubiden 09:05ean, 11:05ean, 14:30ean, 15:10ean, 17:00etan, 20:10ean eta 21:15ean. Astegoen eta jaiegunean: 10:35ean, 13:40an, 18:25ean eta 21:30ean.
Lotura Gasteiz-Durango 18 lineagaz.

Argitaratzailea: Zertu Kultur Elkartea. **Helbidea:** Herriko Plaza 24, Artea. **Tel.:** 94 673 90 13. **E-posta:** begitu@begitu.eus. **Webgunea:** www.begitu.eus. **Zuzendaria eta kudeatzailea:** Iñigo Iruarizaga. **Tel.:** 649 979 115. **E-posta:** inigoirua@begitu.eus. **Erredakzino burua:** Asier Abrisketa. **Tel.:** 626 647 923. **E-posta:** asierabrisketa@begitu.eus. **Erredakzinoa:** Asier Abrisketa eta Ager Barragan. **Webgunearen arduraduna:** Ager Barragan. **Tel.:** 649 979 112. **E-posta:** begitu@begitu.eus. **Maketazinoa:** Iñigo Iruarizaga. **Banaketea:** Garbikuzi enpresea (Dima), Mikel Madrazo (Igorre), Ibai Zarrabeitia (Arantzazu, Areatza eta Artea) Alejandro Konadio (Bedia eta Lemoa), Irati Urien (Ubide), Kepa Artaraz (Zeanuri) eta Mikel Lazaro (Zeberio). **Tiradea:** 7.300 ale. **Inprimategia:** Bidasoa inprimatzeko zentroa. **Facebook:** Begitu Aldizkaria, **Instagram:** @begitu.eus, **Mastodon:** @begitu, **X:** @BegituEus **YouTube:** @BegituAldizkaria



Aldizkariaren edukiaren eta diseinu grafikoaren egile-eskubideak Zertu Kultur Elkarteenak dira, baina partekatu daitezke *Creative Commons Aitortu Partekatu lizentziaren bitartez (CC-by-sa)*. Beraz, erreproduzidu, banatu, jente-aurrean komunikau, eraldatu daitezke, beti be iturria aitatz eta egiletza aitortuz, eta baldintza horreen pean partekatzeko.



Ale kopurua 7.300 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

Babesleak:



ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kexak, eskertronak, hausnarketak, burutazinoak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleei zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratuteko derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkartea
BEGITU aldizkaria
Herriko Plaza 24
48142 Artea
Edo, helbide elektroniko honetara bialdu zure gutuna:
begitu@begitu.eus

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu 15 lerro baino gehiago idazterik. Izena, telefonoa eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUk eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: begitu@begitu.eus helbidera.

ALKARREGAZ



Amexier Ubide Mendi Kirol Taldea

Amexier Ubide Mendi Kirol Taldea Ubide inguruko mendizale eta lagunak batuta jaio zan 2007. urteko maiatzean. Pasino hori alkarbanatuz, mendiko klub bat eratuteko beharrizana ikusi eben.

Klubetik, urteetan zehar, jarduera eta urtekera ugari antolatu dira, kirola sustatuteaz gainera, Ubideko herriaren eta Amexiergo bazkideen alkarbizitzea indartuz. Alkarteko kideentzako urtekera azpimarragarrien artean udako urtekerea dago, helmuga moduan Pirinioak izaten dituana. Bestalde, La Palma, Dolomitak edo Atlas mendietako Toubkal tontorrera be egin dira urtekerak, besteak beste. Gainera, klubaren sorreratik, klubeko bazkideek aktiboki hartu dabe parte garrantzi handiko probetan, berbarako Hiru Handiak-en.

ERETXIA

Geopolitikeari begira, "Heldu" da heldutasunaren sasoia



GABIREL EZKURDIA ARTEAGA

Politologoa eta nazinoarteko ikertzailea

Venezuela izan da, egun batzutan, AEBetatik planetatik astintzen dabilen urakan geopolitikoaren begia. Ekialde Ertaina, Ekialdeko Europa, Latinoamerika, Saharaz hegoaldeko Afrika, Ekialde Urruna... munduko eremu guztiek gainbeheran dagoan potentzia baten haserrea jasaten dabiz. Potentzia horrek huts egindako estatu gisa zehaztuko ebazan adierazle guztiak beteten ditu, eta inperialismo zatarrenetik garatzen dabil, gero eta multipolarragoa dan mundu baten aldeakartasunetik gailentzeko asmotan.

Barneko egoera latza zeozelan sustatzeko eta erabateko porrot handiaren ez jausteko AEBk bizkarrazur bi erabiltzen dauz. Lehenengoa "Dolarra egiteko makina": 1973tik funtsezko tresna da nazinoarteko finantza-merkatizaren kontrola izateko. Egun, "Dolar patroia"-ren amaierera, multipolarismoaren ondorioz, saihestea ezinbesteko helburua dauka AEBk. Venezuelak Txinagaz yuaretan salerosi dau. Hara hor pekatua!

Bigarrena bere indar armatuak, munduko indartsuenak eta ondoen horniduak, edonon, jakin dakigunez, erasotzeko parada dabenak.

Guzurra erabiltea Inperialismoa justifikatzeko tresna gisa ez da barria, baina inoz ez da hain lotsabakoa izan. Suntsipen Handiko Armak Iraken antzestu "ziranetik" egungo "Cartel de los Soles" Venezuelaren ekimen narkotrafikatzailea (100 arrantzale akabauta), alde bakarra dago: oin zuzenean eta eufemismorik bariko asmoak argi azaltzearena da.

2023an, Laura Richardson jeneralak, garai haretan Ipar Amerikako hego komandoko buru zanak, argi eta garbi azaldu eban;

Ekuadorreko litioa, Txileko kobrea, Amazoniako zura, Patagoniako ur geza, Venezuelako petrolio eta abar luze bat, Ipar Amerikako kontzeptu taktiko-estrategiko barriagaitik (Segurtasun Nazionala deritxe) Inperioaren esku-hartze politiko militarren helburu zilegiak zirala.

Ildo horretan 2026an, aurrerago Ekuadorren edo Perun "diferi-

tuan" esku hartu eta gero, AEBk Venezuela erasotu dau. Trumpek zuzentzen dauan gobernu iparramerikarrak, baina arma-zirkuluetako eta beste sektore faktiko batzutako podere sionisten morroi, nazinoarteko legedia apurtuz, Maduro presidentea eta bere emaztea bahitu ditu beste ehun bat venezuelar akabauz.

Ekintza honek hamaika galdera itxi deuskuz mahaigainean.

"Narko-diktadura bolivariartarra" inposatutako Erregimena zala esaten izan dabe urtez urte, baina orduan zergaitik jarraitzen dau Bolivarianismoak poderean? Argi dago: herriaren gehiengo nagusia gobernuagaz egon eta dagoelako, "oposizinoen" indarra, saldu deuskuen hutsa dan "errealidade" inboluzionista bat besterik ez da izan. Capriles, López, Guaidó, Machado, Edmundo Gonzalez... kanpotik eregitako txotxongiloak izan dira "Chavismoa" etenbarik zalantzan ipinteko.

Trumpen lehengo agintaldiko helburua Venezuela itotea izan zan. Trumpek Halliburton petrolio-konpainia Venezuelatik ateratera behartu eban. Oin bere orduko erabakiak alderantzikatu gura ditu ume txiki baten moduan. Gaur egun, petrolio-konpainiek (Josu Jon Imazen Espainiako REP-SOLkoak izan ezik) ez dabe argi erabaki horrek txarto hezitutako haur baten aginduz ordaindu behar diranik. Kontuan euki eskatzen jakien 100.000 milioi dolarreko inbersinoa ez dagoala AEBko gobernuarengaitik berrmatuta!

Desinformauta gagoz, askatasunean eretxia emoteko benetako aukera barik. Datu asko eta fake edo gezurrezko barri gehiago. Historiako informazio gehien jaso daikeen gizarteak Historiako informazio eta manipulazino gitxien dabenak dira. Hara hor kakoa!

AEBek espasmodikoki dihardu. Venezuelen atzo, Iranen gaur eta Groenlandian bihar. Txinan etzidamu. Ezerk ez dau bat egiten logika analitiko bategaz baina bide batez, Mendebaldeko buruzagien adierazpenen gardentasunak argi azaltzen dau nora goazen.



LUMATUTEN



XABIER LAMIKIZ

Badatoz

Imajinatu ondoko egoerea. Munduko behatoki-astron-mikoek espaziotik datorren mezu bat jaso dabe. Mezuak zera dino: "Lurtarrok, badakigu hor zagoziela. Horako bidean gagoz. 10 urte barru helduko gara". Harridurak sortutako paralisia gainditu ostean, behatokitako zientzialariek euren herrialdeetako gobernuak informau ditue eta gobernuak (batzuk behintzat) herritarrak jakinaren gainean ipintea ebatzi dabe. Ze harrera izango leuke barri horrek? Telebista eta irrati kateak sutan ipiniko leitekez, hori ziur. Inork esango ote leuke: "Bueno, hamar urte falta dira oindino, garaiz gabiz arduratuten hasteko?". Ez dot uste, izan be, berehala aterako geun-kez kontuak. Espazioan hamar urteko bidaia distantzia handia da, bai, baina gugaz kontakte-tako gaitasuna baldin badabe, guk ulertuteko hizkuntza baten (emon daigun estralurtarrek mezua euskeraz bidali dabela),

argi dago teknologikoki gu baino garatuago dagozala. Seguruenik askoz garatuago. Zelan hartuko geunke barria? Lasaitasunez? Estralurtarren-tzako harrera-ospakizun bat antolatuz? Misilak zerura apun-tauz? Harrezkero ez geunke beste barriketarik izango. Imajinatua? Egoera horren zati bat besterik ez da imaji-natua. Berez analogia bat da, izan be, funtsean, egoera hori oin bertan bizi dogu, konturatu gura ez bagara be. Gurera da-tozenak ez dira estralurtarrak, eta ez deuskue oindino me-zurik bidali, oindino jaio barik dagozalako. Jaiotzeaz dagoan "espezie" batekoak dira. Haren izena Adimen Orokor Artifiziala (AOA) da. Egun AOA adimen artifizial mota hipotetiko bat da, baina behin sortuta dagoanean, giza gaitasunak ia zeregin kognitibo guztietan gaindituko ditu. Ez da gure menpe egongo. Eztabai-dea dago AOAK arrisku existen-tzialik dakarren. Aditu batzuek dinoe, AOAK ekar daikkeen giza desagerpenaren arriskua arintzea gizakion lehentasuna izan behar dala. Beste batzuek dinoe pesimismo alarmistei entzungor egin behar deutse-gula. Halanda be, gauza baten guztiak dagoz ados: AOA hu-rrengo hamarkadea amaitu au-rretik ailegauko da.

ZERTZEAN



MAITE ARTABE

tsumen berdetik urrun ez dakit begia non pausatu arbolarik ez dagoenean. Lagun ditut, eredu ditut, metafora ditut, ikasgai, lan-eremu, edertasun-iturri... Presentzia gozatu orain ta bapatean eurekiko dueloa jasan gabezia gertatu aurretik. Beldur izaten naiz ez ote ditugun hondamendira eramango halabeharrez. Esango didazue zer egin behar duten izaki sendo bezain paketsu horiek gure izagabekeriaren aurrean. Agian gurekin batera desagertu. Agian dinosaurioekin egin zuten bezala testigu isil izan ta biziraun.

* Zertzean atalean argitaratzen doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran mo-duan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera ereduari ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITU argitaratu gura izan ezker, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak begitu@begitu.eus helbidean.

BEGI TXINDORRA

2025ean lau proiektu eoliko bota ziran atzera EAEn, ekologikoki bideraezinak izateagaitik: Statkraft enpresa norvegiarraren Itsaraz (Aramaio eta Eskoriatza artean) eta Piaspe (Azpeitia, Zestoa eta Errezil), Green Capital Development madrildarraren Larragorri (Laudio, Amurrio eta Orozko artean), eta Vloe Viking Barbara danimarkarraren Enkarterri (Enkarterrietan). Atzen hau, sai zurien presentzia dala-ta. Gainera, abenduaren 16an jakin genduan Guggenheim Urdaibai proiektua be atzera bota zala, enpresearen patronatuak berak ebatzita. Proiektu guztiek izan dabe Eusko Jaurlaritzaren promozinoa, eta kontrara, inguruko herritarren eta talde ekologisten mobilizazioa. Gurean be, proiektu eoliko bi dagoz martxan gaur egun, Mandoiakoa eta Kastillokoa (Legutio, Otxandio eta Ubide artean). Biak dagoz Gorbeia Parke Naturalaren ateetan eta Enkarterrin lez, Mandoia inguruetan sai zurien habiak dagoz. 2026a urte garrantzitsua izango da proiektu bien etorkizuna ebazte-ko eta ikusi danez, badagoz gure mendiak jagoteko aukerak, beti be, herritarrok gure eretxien alde mobilizetako gai garen bitartean.





Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

LORAZAINTZA

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisl.com



BEER & EDARIAK
Guillermo 659 48 28 39

Fernando 699 29 67 17	Arkaitz 677 46 40 91
Eduardo 647 72 96 24	Goldor 666 58 20 06

Pozuetz poligonoa, 10 LEMOA • beeredariak@gmail.com



Ortodontzia
Implanteak
Estetika

Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologia

Bidebarri 1. behea
48140 Igome-Bidaia
T. 94 631 50 39
Idazgaitza Zerbaita: 900
R.P.S. 31/06

ARRATIA, UBIDE

Martiaren 27an, bariku goizean, pasauko da Korrika Bediatik sartuta eta Ubidetik urten arte

Bedian 08:00etan sartu eta Lemoa, Igorre, Arantzazu, Artea, Areatza eta Zeanuri kurutzatu ostean, 11:30ean helduko da Ubidera.



Asier Abrisketa

AEK-k urtailaren 8an emon eban 24. Korrikaren ibilbidearen barri. Martiaren 19an Atharratzetik (Zuberora) urten eta martiaren 29an amaituko da, bidean 2.175 kilometro egin ostean, Bilbon ospatuko dan jaian. Giti gorabehera 460 herritatik pasauko da euskerearen aldeko ekimen erraldoia eta tartean, Arratia eta Ubidetik, martiaren 27an, bariku goiza. Usansolotik sartuta, Bediara 08:00ak pasauta helduko dala aurreikusi dabe antolatzaileek eta behin Arratiako bailara behetik gora zeharkatuta, Ubidetik urtengo da 11:30ak pasauta Murgia alderantza. Honeek dira AEK-k aurreratutako ordutegi zehatzak: Bedia 08:07, Lemoa 08:20, Igorre 08:47, Arantzazu 09:21, Artea 09:40, Areatza 09:53, Zeanuri 10:06 eta Ubiden 11:29an. Bide osoan zehar, N-240 errepidetik ibiliko da lekukoa eskuz esku. Baina herri guztietan sartzeaz gainera, Artean sartu eta Zeanuriko

urigunetik urten artean kamino zaharretik, BI-3530 errepidetik, joango da furgonetea eta atzean, euskaltzale moltsoa. Ibilbidearen zehetasunak Korrikaren aplikazinoan zein korrika.eus webgunean dagoz ikusgai daborduko. Aurten, 3.436 lekuko-hartze egongo dira eta kilometroak eskuratuteko aukerea zezeilaren 1ean zabalduko da.

Korrika aplikazinoan

Aurreko edizinotik hona, aplikazinoak barrikuntza batzuk dakarz. 24. Korrikaren kantagaz egin zan moduan, Korrika Laguntzaileak izan dira ibilbidearen barri izaten lehenengoak. Hareek, eta aplikazinoan deskargauta daukiene be, informazino eta albiste batzuk primizian jasoten dabez. Korrika martxan dan bitartean, martiaren 19tik 29ra arte, eguneko bideokronika bereziak eskainiko dabez AEK-koek aplikazinoan erabiltzaileentzat, ekimenaren jarraipen zuzen eta hurbilekoa egiteko.

IGORRE

Urtailaren 27an ebatziko dau epaileak Kiñu Gaztetxearen etorkizuna

Asanbladeak salatu dau, Sabadell banketxeak gaztetxea indarrez hutsitu gura dauala eta eraikina urte askoz hutsik egongo dala.

Asier Abrisketa

Bost urtetik goragoko prozesu judiciala daukie martxan Igorreko Kiñu Gaztetxeak eta Sabadell Bankuak eta urtailaren 27an, hirugarren epaiketea eroango da aurrera Durangoko epaitegietan. Abenduaren 24an, asanbladakideak Bilboko Sabadellen egoitzara sartu eta ekin-tzea egin eben bertan. Olentzero eta Mari Domingi bulegoetara sartu eta "gazteentzako beharrezkoa dan Kiñu Gaztetxearen negoziazioan aurrerapausu bat emotea" eskatu eben egoitzan. Kanpoan irakurritako komunikaduan, gazteek salatu eben: "Sabadellek ez dau inolako prestutasunik adierazoten urte askoz hutsik egon eta holan jarraituko dauan eraikinaren erabilpena, atzen hamabi urteetan kudeatu dauan asanbladearen eskuetan itxeko". Gazteek defendidu eben, asanbladeari esker bertan behera itxitako eraikin bat izatetik, gaztetxea "Igorreko eta Arratiako herritarrentzako kultura, aisialdi, formazino, kirol eta politizazino alternatiborako espazioa" izan dala, eta "beste hainbeste urtetan zehar holan izaten jarraitu behar dauala". Abenduaren 24an Bilbon egindako ekintzaz



gainera, Kiñukoek beste asanblada batzuen alkartasuna izan eben, Donostia eta Gasteizeko Sabadellen egoitzetan be egin ziralako alkarretaratzeak. Gainera, sareetan salatu dabe gaztetxeen kontrako oldarraldi bat dagoala, izan be, egun berean Donostian, Guardetxearen kontrako epaiketea be egingo da. Guardetxe-koakaz, Zornotzako Matrailu eta Mungiako Errotakoakaz mahai-ingurua egingo da urtailaren 16an Kiñun, 18:00etan. Gero jaitxoa be egongo da, Pantx Records eta Mangual-en pintxadakaz.

Hirugarren epaiketea

Bost urte daroaz Igorreko Kiñu

Gaztetxeak epaiketaz epaiketa, eraikinaren jaubetza legala daukan Sabadell banketxeak gazte asanbladea bertatik bota gura daualako. Epaiketa bi izan dira ordutik, batean Sabadelleko abogaduak ez ziran aurkeztu eta bigarreanean, 2025eko apirlean, gazteek epaiketea atzeratutea lortu eben, estrategia aldaketa bateri esker. 2025eko urri lehenengoan egin behar zan hirugarren epaiketea Durangon baina Kiñuko asanbladeak ezusteko jakinarazpen bat jaso eban epaitegitik. Atzenean, 2026ko urtailaren 27an da egitekoa Igorreko gaztetxearen etorkizuna ebatziko dauan epaiketea.

ARTEA

Sally Rooneyren Jende normala liburua langai Irakurleen Txokoan

Urtailaren 23an egingo da, 19:00etan, Alaine Agirrek gidatutako saioa.

Asier Abrisketa

Arteako Irakurleen Txokoko urtail-leko saioa hilaren 23an egingo da, barikua, 19:00etan betiko lez, Kultur Etxean. Alaine Agirre idazleak oingo saiorako aukeraturako liburua Sally Rooney idazle irlandarrak 2018an, 27 urtegaz, idatzitako Normal people eleberrirakastatsua da, Irene Aldasorok euskeratutakoa (Jende normala, Alberdania, 2020). Gazte biren arteko istorioa kontetan dau no-beleak, edozein garaitan gazte izatea zer dan eta maiteminduta egotea zelangoa dan azalduaz. Trama sinplea dauka liburuak:

Marianne eta Connel gazte bi dira eta maiteminduta dagoz; eta datorren ikasturtean bizi diran herri txikitik unibersidadera saltua emongo dabe, Dublinera. Halanda be, Aldasorok dino obra hamaika aldiz irakurri badau be,

ez daukala oso argi gai nagusia zein dan. Bere ustez, hiru oinarritu istorioak. Gazte izatetik heldu izaterako "normaltasunera" bidea, sexu eta maitasunaren indarra eta besteek zenbaiteranoko eragina daukien norberarengan.



Sally Rooney.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Hegoaldeko herrialdeetara kooperante moduan joateko deialdia egin dau Jaurlaritzeak

Euskadiko Gazteak Lankidetzan programan parte hartzeako izen-emotea zezeilaren 23ra arte egin daiteke <https://www.gazteukera.euskadi.eus/euskadiko-gazteak-lankidetzan/hasiera/> webgunean.

Asier Abrisketa

Eusko Jaurlaritzeak bultzatutako Euskadiko Gazteak Lankidetzan programea aurten be ipiniko da martxan, Euskadiko gazteak hegoaldeko herrialdeetako lankidetzak-ekintzetan sensibilizatu eta alkartasun-kultorea sustatuteko helburuagaz. Programea 22 eta

30 urte bitarteko gazteentzako da eta honen bitartez, Amerika, Asia eta Afrikako herrialde batzuetan, normalean garagarrietik urri bigarrenera arte, Gobernu Kanpoko Erakundeak lankidetzak-ekintza-lanak egitera dago zuzenduta. Izen-emotea zezeilaren 23ra arte dago zabalik, [https://www.gazteukera.euskadi.eus/euskadiko-](https://www.gazteukera.euskadi.eus/euskadiko-gazteak-lankidetzan/hasiera/)

[gazteak-lankidetzan/hasiera/](https://www.gazteukera.euskadi.eus/euskadiko-gazteak-lankidetzan/hasiera/) webgunean. Euskadiko Gazteak Lankidetzan programea 1993an ipini zuen martxan eta ordutik, ia 2.600 gazte bidaia dabe hegoaldeko herrialde pobreetara, GKEek bertoko garapenari bultzadea emoteko daukiezan proiektu ugari. Atzen urteetan barbarako,



Hondurasen, Perun, Ekuadorren, Mexikon, Guatemalan, Bolivian, Kolonian, Ginean eta Etiopian egon dira boluntarioak. Urtean gehienez ehun gazte onartuten dira eta behin hautaketea egin-

da, Eusko Jaurlaritzeak aukeratu-takoen joan-etorritako gastuak, herrialdean egoteko bisa eta erantzukizun zibilaria eta istripuei aurre egiteko aseguru hartzean ditu bere gain.

ZEBERIO

1.800.000 eurotik gorako aurrekontua onartu eban Zeberio Udalak

Abenduaren 19an argitaratu zuen Zeberio Udalak 2026rako aurrekontuen behin-behineko onarpena, BEGITU 2025eko abenduaren lehen hamabostaldiko aldizkarian aurreratu eban, 1.840.749,08 euro kudeatuko ditu Udalak aurten. Pasau dan urtean baino 60.000 euro gehiago da hori eta aurrekontu proiektuaren nondik norakoak zementatu 20an azaldu eban Udal Gobernuak jentearrean.

Asier Abrisketa

EAJ abstenidu egin zuen aurrekontuok eztabaidatuteko plenoan. Karlos Idiriek BEGITU azaldu dau errazoa: "Alkarlanerako aukera gehiago egon eitekezan, eta gardentasun handiagoa espero genduan prozesu osoan. Gobernuak aurrekontua zarratuta aurkeztu eban, eta horrek oposizioaren lana mugatu dau". Udal Gobernuak aurreikusitako partida garrantzitsuenak auzobideak asfaltetea eta uriguneko baldosa eta biondak konpondutea, gazteentzako jolasgunea egin eta lokalaren funtzionamentua birplanteatzea, eskola zaharrean gimnasioa egitea, Herriko Tabernako obrak, etxebizitza diagnostikoa eta bide eta baso pisten inbentarioa amaitutea dagoz, besteak beste. Halanda be, EAJtik salatu dabe aurrekontuek ez dabela "barrikuntzarik proposatuten eta gainera, ekonomikoki deskontrolatetako arriskua" dagoala. Holan, gastu korrantea handitu eta



Aurrekontuetako batzarra.

inbersinoak murriztu dirala salatu dabe eta inbersinoak, "herriaren garapenerako funtsezkoak" dirala. EAJren kezka nagusiak bi izan dira. Batetik, "larritzekoa" ikusi dau kontuak egokitzeko Udaletik adierazten egoitzara 64.000 euroko dirulaguntzea egitea eta eskatuten dau, egoitzearen bideragarritasunaren gainera informazioa gardena

emotea. Bestetik, aurrekontu proiektuan 61.000 euroko desoreka egoan eta hainbat partida moldatu behar izan dira. EH Bildutik azaldu dabe arazoa izan zala Excelak ez ebalu gelaska bat kontatu eta EAJk aldarrikatu dau akatsa detektatu eta moldatuten lagundu dabela: "Horrek erakusten dau oposizioaren lana beharrezkoa dala".

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

BEGITUk identitate bisual barria dauka



Ager Barragan

Komunikazioaren mundua beti dago ebolutzio konstante baten, informazioa zabalduteko kanalak eta moduak aldatu egiten dira urteen poderioz eta BEGITU be aldaketa horren parte izan gura dau. Aldizkariak argitaratuten da-roan denporan zehar, ia 24 urte hain zuzen be, hainbat logo eta formatu aldaketa egin dira, beti be, ebolutzio konstante hori topau guran. Oingoan be, aldaketa honegaz, hori izan da helburu bakarra; gagozan denporara moldatu eta informazioa modu serioago eta formalago, baina hurbilago eta erakargarriago baten zabaldutea. Logoaren aldeketea izan da egin dan lehenengo mobimentua. Betiko kolore bardinak mantenduz, logoaren aldaketa integrala egin dogu. Holan, BEGITUren historian lehenengo aldiz, logoa letra larriz ipintea ebatzi dogu.

Maiuskulek indarra eta ziurtasuna transmititzen dabe, BEGITUk, nahiz eta urteak pasau, hemen segiduten eta segiduko dauala adierazoteko. Logoaren gerezia, begi bat simuletan dauan puntu larrosea da. Beste alde batetik, sare sozialen eta bertan sortuten eta sortuko doguzan edukien transformazioa izan da gure ardatzetako bat. Honeetan, logo barriagaz eta formatu eguneratua daukiezan sare sozialako publikazio eta bideoak, lehen begirada baten ezetuten dan identitatea sortu dogu. Aitatu moduan, erabiltzaileei Arratia, Ubide eta Zeberioko informazioa modurik erakargarri eta eraginkorrean helarazoteko helburuagaz, BEGITUren esentzia izaten jarraituten dauan baina oingo denporara eta modernizadara egokituta dagoan uniberso bisuala sortu dogu. Apurka-apurka joango gara aldaketak egiten. Adi egon!

AREATZA

Etxebizitza diagnostikoa egiten hasi da Udala

Gitxi gorabehera martira arte, atez ateko inkestak egiten ibiliko dira Torrene Consulting-eko langileak, etxebizitzaren egoereari buruzko azterketea egiteko helburuagaz.

Asier Abrisketa

Abenduaren 29an, bando baten bitartez jakinarazo eban Area-tzako Udalak, uriguneko etxebizitzaren diagnostiko bat egiten hasi dala. Zigor Folla alkateordeak BEGItun azaldu dau, gitxi gorabehera martira arte egongo dirala Torrene Consulting enpresako langileak atez ate, banakako inkestak egiten. Diagnostiko honen helburua, Follak azaldu dauanez, "aurrerago etxebizitza-politikak egiterakoan, herriko etxebizitzaren argazki zehatz bat" eukitea da, politika eraginkorrak egite aldera. Horretarako, Udalak "ahalik eta lankidetzan handiena" eskatu deutsee maizter zein etxeen jaubeei.

Alde batetik, etxebizitzak familien ekonomietan daukan eragina

neurtu gura dau Udalak. Horretarako, familia unidadeen diru-sarreraren inguruan zein etxebizitzearengaitik, alokatuta zein erosita, ordainduten dabenaren gainean galdetuko da. Zigor Follak adierazo dauanez, ez da kopuru zehatzetaz berba egingo, diru-sarreraren tarteez baino. Beste alde batetik, zenbat etxebizitza huts dagozan zenbatuteaz gainera, horretarako errazoiak jakin gura ditu Udalak eta horretarako, etxeen jaubeak egingo da berba. Amaituteko, bertan bizi diran ikuspegitik, etxebizitzaren kalidadea be neurtu gura da. Alkateordeak argitu dauanez, alde teknikotik baino, familiaren egoerea, berogailurik dagoan edo berbarako, argindarra ordainduteko zailtasunik dagoan jakin gura da.



AREATZA

Uri marrazketa ikastaroa antolatu dau Martin Ortegak

Asier Abrisketa

Martin Ortega Muro Areatzako ilustratzaileak akuarelagaz egindako *Urban Sketch* ikastaroa emongo dau zezeiletik aurrera Areatzan. "Marrazki eta akuarela bitartez, ingurua patxadaz begiratu ikasiko dogu, ikusten doguna sinplifikatzen eta sormen-prozesuaz gozatuten, iges egin eta kontzentratu momentu moduan", azaldu ten dau Ortegak. Talde txikia eratu gura dau ilustratzaileak eta printzipioz -taldean aldatuteko aukerea dago- zezeiletik aurrera martitzenero, 18:00etatik 20:00etara, egingo dira klaseak. Ikastaroak 50 euroko kostua dauka eta material guztia

sartzean da barne. Izena 617 332 691 telefonoan edo martin@estu-diouende.com-en emon daiteke.

Klaseak, eguraldiak ixten dauan bitartean, kalean emongo dira; Areatzako urigunean zein inguruetan. Saiotetan ingurua behatu eta enkoadretan, uri marrazketari aplikatuko oinarritzko ikuspegia lantzean, marrazki solte eta adierazkorrak egiten, akuarela teknikak, "bildurrik bako" kolore eta nahasketak errazak erabiltzen eta gitxiago marraztuta gehiago adierazoten ikasiko da. Ikastaroa "eguneroko eritmotik deskonektetako" atakia bat dala be argitu dau Ortegak eta marrazketea, erlajetako eta arreteta eskaintzeko tresna moduan baliatuko da.

ARTEA

Venezuelaren egoerea geopolitikearen ikuspuntutik aztertuko da Artean

Venezuela: herriaren burujabetza eta geopolitika izeneko solasaldia hilaren 17an egingo da, eguerdian, Arratian bizi diran venezuelar bigaz batera.

Asier Abrisketa

Urtailaren 3ko goizaldean, Estatu Batuetako armadeak aireko erasoaldia abiatu eban bonbaz, Caracas uriburuan zein Venezuelako beste hainbat lekutan. Geroago jakin zanez, jomugea Nicolas Maduro presidentea eta bere emazte Cilia Flores bahitu eta AEBetara eroatea izan zan. Eraso eta atxiloketen eraginez 100 persona inguru erail eta nazioarteko legedia larriki apurtuteaz gainera, Donald Trumpek zapatu arrasti haretan argi azaldu eban erasoaren helburua zein izan zan: "Ahalmen osoa behar dogu petroleoa eta beste gauza batzuk ustiatuteko". Horrezaz gainera, mehatxu egin eban oin herrialdea berak kontrolatzen dauala eta gobernu barriak eskatutakoa egiten ez badau, AEBak barriro erasotuteko prest dagozala.

Batzuen poza eta beste batzuen haserrea eragin badau be, argi geratu da erasoaldi hau geopolitika kontuakaitik eragindakoa dala eta geopolitikoki, ondorioak izango dituala. Holan, Arteako Herriko Bentak *Venezuela: herriaren*



burujabetza eta geopolitika solasaldia antolatu dau urtailaren 17rako, zapatua, 12:30ean. Bertan, AEBen erasoaldia herrialde baten burujabetzearen kontrako ekintza bat izan dala salatuko da eta erasoaldiaren atzean dagozan errazoi geopolitikoak azaleratuko dira. Saioa, Nikole Ziaurrusta Artea Sareako kideak gidatuko dau eta beragaz egongo dira Zulay Gil

eta Efen Borges, Venezuelako kargu politikoak izan dabean baina gaur hemen bizi eta Artea Sarearen parte diranak; Borges alkate be izan zan Venezuelako Iturriza udalerrian. Gainera, Gonzalo Fernandez bilbotarra eta OMAL Amerika Latinako lehengaiak ustiatuten dabean multinazionalen behategiko ikertzaileak be hartuko dau parte solasaldian.

IGORRE

Arantzarte jantza taldearen 50. urteurreneko jaialdian grabautako bideoa proiektatuko da Lasarte Aretoan

Hilaren 30ean proiektatuko da bideoa eta Gabonetako jantza hurrengo egunean egingo da kiroldegian.

Asier Abrisketa

Arantzarte Dantza Taldeak 50 urte bete ebazan 2024an eta urteurrena dala-ta, hainbat jarduera antolatu ebazan urte haretan zehar. Maiatzean ospatu zan jaialdi nagusia astegoi oso batean zehar jantza, musika, bazkari, azoka eta herri kirol erakustaldien artean, tartean Gozategiren kontzertua. Bariku haretan, txupinazoa bota eta jantza egin eben Arantzartekoek eta bertan egon ziran kamarak, ekitaldia grabetan. Sortutako bideoa urtailaren 30ean, barikua, proiektatuko



da Igorreko Lasarte Aretoan, 19:00etan.

Hurrengo egunean barriz, zapatua, Igorreko kiroldegian urteroko Gabonetako emonaldia egingo dabe Arantzarteko jantzariek 18:30etik aurrera. Kittu, Zornotzako taldearen zuzeneko musikeagaz, "jantza tradizionalak eta ez hain tradizionalak" egongo dirala aurreratu dabe Arantzartetik. Adin guztietako jantzariek hartuko dabe parte, 80tik gora. Nagusien taldea, umeak eta ikastaroko adin guztietako jantzariek egongo dira bertan.

GONTZAL MENDIBIL

"Gaurko momentua ikusi eta atzera begiratzeari izango da kontzertua"

Gontzal Mendibilek 50 urte daroaz kantagintzan eta hau ospatuteko aparteko kontzertua eskainiko dau urtailaren 21ean Bilboko Arriaga antzokian.

Asier Abrisketa

1975ean Xeberrigaz *Zaurietatik dario* diskoa argitaratu ebanetik mende erdi pasau da eta ordutik, beste 21 disko eta zazpi musikal argitaratu dauz Gontzal Mendibil zeanuriztarak. Dendarien seme baina betidanik belarri onekoa, amamak hamabi urtegaz oparitu eutsan lehenengo gitarrea eta ordutik dabil "kondena polit bat" betetan. Musikeagaz izandako lehenengo hartu-emonetaz, bere ibilbide oparoaz, Arriagako kontzertuaz, Arratia eta Gorbeiak berarengan izan dauan pisuaz eta etorkizunaz egin deusku berba kantariak BEGITUN. Izan be, oindino gogotsu dago aurrera egiteko eta beste musikal bat estreinauko dau uda partean: "Aurrean proiektuak badaukazuz eta gogotsu bazagoz, nik uste dot merezidu dauala aurrera egiteak".

50 urte ospatuten dozuz kontzertuan, baina urtebetez jaia be izango da. Zer sentiduten dozu zenbaki horreekaz atzera begiratutera?

70 urte egingo dodaz bai, hiru egun beranduago! Ba helduak bagarala eta zorionez, oindino burua fresko daukat, eta gogotsu. Sorkuntzea beti izan da nire gaia, nire gogo. Txiki-txikitatik hasi nintzan sortzean, poesiak egiten, kantuak egiten. Bizirik egon eta osasunez ondo egon ezker, behintzat, esperantzea ez da inoz galdu behar. Nik 1974an Abra Saria, orduan famaua zana, irabazi eta gero -1975ean grabau genduan lehenengo diskoa- ba 50 urte arin pasetan dirala, arin, konturatu barik; eta momentua aprobetxatu behar dala. Ni ez naz kexatuten, horretarako motiboak badagoz, baina nik uste dot aurrean proiektuak badaukazuz eta gogotsu bazagoz, nik uste dot merezidu dauala aurrera egiteak.

Txikitik be ibili zara koruan eta... Noiztik hasten zara zu 50 urteak kontetan?

Batez be, lehenengo diskoa grabau genduanetik. Abra Saria 1974an irabazi neban, aurreko urteetan Estitxuk, Natxo de Felipek, Patxo Areatzakoak eta Xeberrik irabazitakoa. Gaurko Operacion Triunfo antzerako bat zan, euskeraz. Kantu bi eroan behar zenduzan eta gero, aukerea emo-

ten eutsuen diskoa grabetako. 1974an hasi nintzan kantu kantari baina 1975ean, Xeberrigaz batera *Zaurietatik dario* diskoa grabau neban, Franco bizi zala; urrietan grabau genduan Madril. Euskal Herrian baegoan herri gogoa baina disketeak gitxi egozan eta han grabau genduan. Gero, horko kantu asko ezagun egin ziran: *Ba gare, Kapitalismoak, Laster laster...* Grabau aurretik be! Eta bueno ba gero ibilbidea holan doa, Xeberrigaz batera hasi nintzan eta gero 1978an egin neban nire bigarren diskoa, Bartzelonan grabautu.

Eta aurretik koruan eta ibiltzen zinanetik zer gogoratuten dozu, zer gelditu jatzu?

Ba gauza politak. Ni dendarien semea naz, Zeanurikoa, ama baserrikoa eta aita plazakoa. Gurasoek gura izaten dabe zeuk jarraitutea euren negozio dendan baina nik dendari izateko, uste dot ez nebala balio. Txiki-txikitatik musikazalea eta musikarako gogoia izan neban. Ahots onak dira adibidez Pavarotti, eta guk daukagu gustua, ahotsa ia... Baina beti belarri onekoa izan naz, hori bai. Eta belarri onekoa izateak lagunduten deus solfeoa ikasten, kantua ikasten... Baina amamak gitarrea oparitu eustan hamabi urtegaz.

Orduan kondenau eban zure etorkizuna?

Bueno condena polit bat da hori! Zapaturu joaten nintzan, Arteako gabrielisten ikastetxera, han baegoan Burgoseko apaiz bat eta berak emoten ebazan gitarra klaseak, eta han egon nintzan euskeraz. Gero, Durangon egon nintzan barnetegian eta hamalau urtegaz irabazi neban lehiaketa bat. Orduan dana erderaz zan, euskeraz ez zan ezer egiten, eta Joseba Sarrionandiak kontetan dau, ni baino pare bat urte gazteagoa da, berarentzako martiziano bat ikustea modukoa izan zala: "Ostras, euskeraz abesti bat!". Klaro, garai hareetara joan behar da. Beste anekdota batzuen artean. Nik sei urte eukiko nebazan eta Zeanur, beste herri askotan moduan, behartuten gintuen *Cara al sol* kantetan, eskolara sartu aurretik Espainiako banderea igonda. Askotan brometan esaten dot, Francok kantari bihurtu ninduala.



Niri beti gustau izan jata kantetea, baina gerora konturatuten zinan ha zer zan.

Etorri ziran, 1970ean edo, Areatzan egoan zinema batera domeka eguerdi baten orduko kantari ezagunak: Benito, Mikel Laboa, Lourdes Iriondo eta Xabier Lete. Ni mutikoa eta gitarreagaz hasten. Esan neban, "egunen baten gurako neuke kantari izan!".

Zelangoa izan da zure harremana beste musika estilo batzukaz?

Ondo, jarraituten dot. Lehengoan adibidez egon nintzan Gorka Urbizugaz, oso kantari ona. Edo Arriagarako bota deusta bideotxo bat Pello Reparazek, bai eta Iñigo Etxezarretak. Oso musikari onak. Pozgarria da, ni baino askoz gazteagoak dira. Hau kate bat da, gu bagoaz eta beste batzuk etorriko dira.

Zer sentiduten zenduan ikusi zenduanean zure ibilbidea aurrera joiala?

Ni beti izan naz euskal kulturearen aldekoa eta uste dot hor konpromiso bat be badaukagula.

Etorri ziran, 1970ean edo, Areatzan egoan zinema batera domeka eguerdi baten orduko kantari ezagunak: Benito, Mikel Laboa, Lourdes Iriondo eta Xabier Lete. Ni mutikoa eta gitarreagaz hasten. Esan neban, "egunen baten gurako neuke kantari izan!".

Zu hemen jaio zara, zeure herria maite dozu, nondik zatozen eta nor zaren jakin behar dozu. Kantagintzan badaukazu zure lekua eta gauza polit bat da, aurrean ikusten badozu jentea zeugaz, zure kantuak kantetan... ederra da. Nik gehiago disfrutetan dot sortzean nabilenean, etxean. Baina gero, kantaldietara joan eta jentea zeugaz ikusten dozunean oso pozgarria da. Hor ikusten da zeozertarako balio dauala; horrek emoten dau aurrera ekiteko gogoia.

Ordutik, aldatu da musikea ulertuteko zeure modua?

Ni hasi nintzan garaian egoten ginan arrasti oso bat disko bat entzuten. Gaur barriz -nik gurago dot aurrekoa- dana da zati bat hone-na, bestea harena... Dana arin, igual kantu osoa bez. Nik uste dot sakontasun bat falta dala, danok gabiz apur bat erakusleho batera begira moduan, dana arin doan munduan. Nik uste dot, letrek be, sakontasuna behar dabela; ez edozer gauza esan edo bota. Gizarte holan dago, arintasunean. Moda da? Bai. Niretzako zoritxa-

rreko moda bat ze ez badozu sakonduten, ez badozu hausnartuten... Ikusten dan beste gauza bat da mundu artifizialago bat, dana da espektakulu handi bat. Gaur ez dakit kantari onak behar diran, behar da ikuskizunak egitea. Baina gurera joanda, pozgarria da euskal kantagintzea be bizi-bizirik dagoala ikustea.

Arriagakoak be badauka espektakulu puntua ez?

Bai, bai! Gaur horretan gagoz, ikuskizunak dira. Jantzak, akto-reak, musikea... Banago beste musikal bat be prestatuten, baina ez noa zer dan aurreratuten.

Eta Arriagako kontzertuaren inguruan? Zer izango da atzera begirako edo orainaldiari begirako proposamen bat?

Ba 50 urte luze diranez, egingo doguna da gaurtik atzera joan. Tarteka, hamarkadaka, adibidez 2025-2015, sartuko dodaz garai horretako bost kantu. Gero beste hamarkada bat atzera egin eta beste lau-bost. Ezin dozuz asko eta asko kantau ze bestela, lau ordu behar dira. Orduan, ez da erraza aukeratzea ze kantu, batzuk, gogokoak diranak ahaztu behar dozuz. Adibidez, niretzako Arratia eta Gorbeia beti izan dira nire iturri, eta egongo dira. Bideoak be egongo dira, ezagun batzuk agurtuten eta oso emotiboa izango da. Ordu bitik ez pasetea gura neuke, ze bestela... Baina bueno konbidau batzuk be etorriko dira eta... oso emotiboa izango da.

Easo Abesbatza eta beste musikari talde handi batek lagunduko deutsu ezta?

Bai musikari oso handiak dira. Eta Easogaz egin dodaz hiru disko, oin entseguakaz gabiz. Gero badagoz Ainhua Tabuyo donostiarra eta Maddi Otamendi beasaindarra be, oso ahots ederrak daukiez eta oso gauza polita egingo dogu. Tabuyo nigaz egon da hainbat diskotan eta Maddi *Hazia* musikalean be. Beste musikari gehienakaz be egin dot lan. Angel Unzu adibidez Benitogaz ibili da urte askoan. Iñaki Diegez akordeoilaria fenomeno bat da, Circo del Solen egon zan bost urtez. Musikari onakaz ikusten dozu babestuta zagozala.

Gaur egun emozinoa sortzea da gauzea, jentea emozionetea. Badakit gehien bat adineko jentea egongo dala, gazteren bat bai baina hogeit urtekorik ez da askorik egongo. 50 urtetik gorakoak, baina bueno, niretzako gogorapen ona da; gaurko momentua ikusi eta atzera begiratzea izango da kontzertua. Ez atzean geratutea, niri ez jata gustetan melankolia hori, izan zana...

Musikaz aparte, jantzak eta proiektzinoak be egongo dira.

Bai. Badagoz profesional batzuk

bideo muntaketak egiten da-bezanak eta egingo doguna da, bideoen bitartez adierazo garai hori zer izan zan. Nire bideoak edo garaikoak, kantariren bat ha azalduten eta holangoak. Gero, bigarren saiora goaz eta jantzak be egongo dira. Ume batzuk be egongo dira kantetan. Ez noa aurreratuten baina sorpresatxo batzuk be egongo dira; jente ezagunaren sorpresatxo batzuk. Jantzan Beti Jai Alai taldekoak egongo dira, nigaz *Olentzero* egin eben, bai eta *Arrupe* musikalean eta atzenengoan, Lauaxetarenean. Lauaxetarena berezia izan zan, ze peneagaz ikusten dot gaur gazte bat hartu eta ez dakiala Lauaxeta nor zan, edo Iparragirre. Gure kulturako erreferenteak nortzuk diran ez jakitea... Lauaxeta gure Lorca da, fusilau eben! Kontzertuan Lorcan egindako kantu bat kantauko dogu, Blas de Oterok egindakoa. Lorca bera Arriagan egon zan, 1935ean, gerra eta fusilau aurretik.

Zelan gustauko jatzun jentea Arriagatik urten eta kontzertua gogoratutea?

Ba emozinoa sortzea da kontua. Beste era batera urten behar zara, zeozer ikutu behar deutsu eta kantuak be horretara doaz, emozinoa eta motibazioa sortzea. Negar-antpulu batzuk egongo dira, baina ez txarrak, disfrutatzea goaz. Batez be, adineko batzuk gogoratuko dira garaiotaz, oin 50 edo 30 urteko kantuakaz. Baina jakin bebai atzen hamarkada hau izan dala, beharbada sorkuntza gehien egin dodana, hasikeran baino gehiago. 2014an egin neban disko bat, 2018an umeentzako *Gau magikoa*, 2019an *Biok* diskoa, 2020an Iparragirren jaiotzearen 200. urteurrenekoa egin genduan, 2021ean San Juan Gurutzekoarena... Kriston lana egin eban Baraiazarrak metrika eta errima berean euskeratuten. Haregaz 22 kontzertu edo, eta Avilan be egon ginan, eta harrerea sekulakoa izan eban han be, hango santua da-ta. Esperientzia polita. *Hazia* muskala be 2022an... Tarteka joango gara kontzertuan hori dana erakusten, zati batzuk.

Eta 50 urte barru? Zelan gustauko jatzun jentek zu gogoratutea?

50 urte barru? Ahaztuta egongo gara (barreak). Ez dakit, ni momentuan bizi naz eta ez deust askorik ardura. Hemen gagozan bitartean aurrera egin eta kantu batzuk hor geldituten badira, herriarenak izango dira. Adibidez, *Ba gare* ba bai, heritarrena da eta beste batzuk be igual geldituko dira. Etorri gara zeozer egiteko, ez egoteko bakarrik ezta? Badago esakera bat, Kapanagak esaten ebana: "Izan, egin eta hil".



Gu egiteko etorri gara, egon barik egin. Nik gurago dot ekin, eutsi baino. Arratian "ekine baragarrie da" esaten dogu eta oso polita da hori.

Ekin deutzazu 50 urtez, urteurren hau bada erritmoa bajatuten hasi edo jubilazina nora hurbilduteko atxakia bat?

Adinez banago jubilauta baina ez. Osasuna badaukagu ni prest nago jarraituteko. Ez neuke gura, ezin dozunean hor egotea, hobeto itxi. Baina gogotsu bazagoz eta zorionez, oindino banago. Osa-

sunak lagunduten badau aurrera egiteko prest. Noiz arte? Ba ez dakit. Baina beste 50 ez (barreak). Baina gogoa eta proiektuak izatea beti da inportantea ekiteko.

Gogotsu zagozala dinozu eta musikal bat daukazula eskuartean, aurreratu ahal dozu zeozer?

Atzen muskala baten bakarrik egin dogu, Lauaxetari buruzkoa. Persona inportantea bai poesian eta bai sozialki. Niri gai sozialak interesetan jataz, mundua zelan dagoan. Nire kantzak be beti eroan dabe aurrera mundu

soziala, ez edozer gauzari kante-tea. Herri bateri, persona bateri, egoera bateri... Eta Lauaxetarena egiteko asmoa daukagu beste leku batzuetan, ikuskizun polita da. Eta musikal barri hori... ez noa zer dan esaten baina gauza oso polita da. Asmoa aurtengo uda bitartean estreinua egitea da, hor nabil. Muskala egiteko beste arazo bat da finantziazioa behar dala. Lan handia izaten da eta badakizu atzenean kulturarako laguntzak ez dirala askorik egoten. Baina bueno hor gabiz. Pistarik ez noa emoten baina nik zazpi egin dodaz eta beharbada, hau izango da onena. Oso erakargarria izango da.

Zurea izan da Zeanuritik Euskal Herrirako saltu bat, ze paper izan dau Arratiako publikoak zure ibilbidean?

Ni zeanuriztarra naz, nahiz eta 18 urtegaz Bilbora joan nintzan ikasketak egin eta biziten, baina beti ikusi naz zeanuriztar eta arratiarra. Nire osabak esaten dauan moduan, "Arratia, Paris y Londres, tres maravillas del mundo" eta nik be uste dot Arratiak badaukala berezitasun bat. Manteneduten dauz gure ohiturak, gure euskerea eta gure gizatasun hori. Leku askotan aldatu egiten dira eta Arratian, eta batez be Zeanurin, mantenido egiten dira. Kontzertu hasikeran hasiko gara kantu bategaz: "Ez duzu ahaztu behar nor zaren, nondik zatozen, ez duzu ahaztu behar norantz zoazen...". Horregaz hasiko gara eta gero pasauko gara Gorbeia eta Gorbeiatik, Lorca Bilbora etorri zaneakoagaz. Orduan Arratiatik Gorbeia eta Gorbeiatik Bilbora egingo dogu. Inportantea da ez ahaztutea nongoa eta nor zaren, ze ahaztuten badozu zure izakerea be... Gorbeia eta Arratia bizi-bizirik eukiko doguz Arriagan eta bazatozie ikusiko dozue gure zutarrak Arratian eukiko doguzala. Disfratau gura badozue etorri eta ikusi!



Gontzal Mendibil, erdian dagoan mutiko txikerrena.

Ubidestroï lasterketetan izen-emotea zabalik

Mendi lasterketa bietarako eskura-
gai ipini dabezan 300 dorsalak bete
arte egongo da zabalik maiatzaren
30ean jokatuko diran Ubidestroi
Trail lasterketetan parte hartzeako
izen-emotea. Izena *kronoak.com*
webgunean emon behar da.

troko ibilbidea dauka eta 2.000 metroko desnibela. Lasterketako punturik gorena Gorbeiako ton-torra da eta ibilbidea egiteko, 6 ordu daukiez parte hartzaileek. Lasterketa laburrak barriz, 20 kilometro eta 1.000 metroko desnibeldun ibilbidea dauka. Honek be gehienez 6 ordu ditue ibilbidea egiteko




Xabi Rekalde: "Gero eta aukera gitiago daukaguz"

berriaren kontra 22-16 galdu eben. Egun bi beranduago, Salaberria eta Gaskueren kontra jokatu eben Bilbon eta orduan handiagoa izan zan aldean, 22-12. Hilaren 10ean barriz, Dario eta Loza liderren kontra egon ziran aurrez aurre sailkapenean atzenak diran Rekalde eta Bikuña Logroñon eta 22-13 galdu eben. Beste hiru partiduko jokatuak ditue hileon; 18an Mungian Murua eta Gabirondoren kontra; 26an, Gaute-giz-Arteagan Zubizarreta III eta Arangurenen kontra eta 31n, Senar eta Ugartemendiaren aurka Genikan.

lehenengo hamabostaldian beste hiru jokatu dabez baina ez dabe garaipenik lortu. Beraz, *playoff*-ak jokatu teko "gero eta aukera gitxiago" dabezala onartu dau Rekaldek BEGITUN. Faltau diran laurak edo gehienak irabazi behar dabez, eta besteen emaitzak mesedegarriak izatea.

Urte barria Zornotzako frontoian
hasi eben urtailaren 2an Rekalde
eta Bikuñak; Peña II eta Morgaetxe-



FUTBOLA

Andrazkoen Arratia A taldeak lidertzea berreskuratu dau

Andrazkoen eta gizonezkoen Arratia Ak eta Lemoako Harrobik hilaren 10 eta 11n jokutako partiduak irabazi ebezan, gizonezkoen Arratia Bk bardindu egin eban eta andrazkoen Arratia Bk galdu.



Andrazkoen Arratia A taldea.

Erredakzinoa

Andrazkoen Arratia A taldeak hilaren 11n jokatu eban etxetik kanpo Oiartzun taldearen kontra eta 1-2 irabazi eban. Atsedenaldira galtzean heldu baziran be bigarren zatian Ariane Blascok 60. minutuan eta Nerea Beitia kapitainak 90. minutuan sartutako golek garaipena emon eutseen arratiarrei. Aurreko jardunaldiko Tolosaren kontrako bardintek bigarren postuan kokatu ebazan arratiarrak Athletic C-gaz bardinduta baina Tolosak atzen jardunaldian Athleticen kontra

lortutako garaipenak eta Arratia Aren garaipenak ahalbidetu dabe lgorrekoak lider izatea barriro. Nerea Beitia kapitainagaz egon da BEGITU eta hauxe adierazo dau: "Txarto hasi gara baina gola hartu dogunean bizkortu egin gara eta aukerak euki doguz. Bigarren zatian oso ondo ibili gara eta aukera asko euki doguz". 13 jardunaldiren ostean 26 puntu ditu Arratia Ak eta lidertzan dago. Datorren partidua Urbietan jokatu dau Real Mariño Union taldearen kontra hilaren 17an, 15:45ean. Andrazkoen Arratia B taldeak hilaren 10ean jokatu eban etxean

Etxebarri taldearen kontra eta 1-2 galdu eban. Lehen zatian kanpotarrak 0-2 ipini ziran. Bigarren zatian arratiarrek aldea murriztu eben 68. minutuan Ainhoa Romerok sartutako golari esker. Aukera parebakoa galdu eban Arratia Bk lidertzan segiduteko, oin bigarren postuan dagoz. Aurreko partidua liderra dan Indartsu taldearen kontra 1-2 irabazi eban Arratia Bk urtaileko lehenengo astegoienean. Datorren partidua etxetik kanpo jokatu dau Bizkerre C taldearen kontra hilaren 17an, 17:45ean. Gizonezkoen Arratia A taldeak

ZIKLO-KROSA

Hamaika garaipenegaz amaitu dau denporaldia Manu Quintanillak

Atzenengoan, Espainiako Txapelketan, podiumera igoteko helburua eukan baina laugarren egin eban.

Asier Abrisketa

Manu Quintanilla Master50eko txirrindulari igorreztarrek amaitutzat emon dau oingo ziklo-kros denporaldia. Urtilaren 10ean Tarancón-en (Cuenca) jokatu zan Espainiako Ziklo-kros Txapelketakoa izan zan atzen lasterketea eta podiumera igoteko helburua bete ez baeban be, sano pozik

agertu da egindako denporaldiagaz. Hamaika lasterketa irabazi ditu: "Uste dot egin dodan denporaldirik onena izan dala". Halanda be, atzenaren inguruan onartu dau: "Ez zan izan desira neban txapelketea". Izan be, podiuma egitea zan bere helburua eta atean geratu zan, laugarren". Quintanillak BEGITU azaldu dau urtekerea "perfekto" egin ebala

baina alde teknikitik ez ebala asmatu. Izan be aurreko gupila larpuztuta egoteagaitik eta zirkuitua izoztuta egonda, bihurruneetan laban egin eta hainbat postu galdu ebazan. Hamargarren postuan geratu zan, "baina txipa eta bizikletea" aldatuta, aurrera egin eta hainbat postu berreskuratu ebazan, laugarren ipinita, 42:06ko denporan amaituta. Lehenengoa Tomas Misser izan zan, munduko txapelduna, baina beste biei, Jose Luis Rebollo eta Enrique Solerri irabazteko gai zala esan eban igorreztarrek: "Denporaldi osoan

hilaren 10ean jokatu eban etxetik kanpo Mungia A taldearen kontra eta 2-3 irabazi eban. Etxekoak aurreratu ziran 22. minutuan baina lehen zatia amaitu orduko bardinketea lortu eban Arratiak Amin Chairak 38. minutuan sartutako golari esker. Bigarren zatian Alex Etxebarriak aurreratu ebazan arratiarrak 59. minutuan eta 76. minutuan Jon Ordeñanak hirugarrena sartu eban. Mungiak 82. minutuan sartu eban 2 eta 3koa. Aurreko partidua 2-0 irabazi eban Arratiak Urbietan Ugeraga A taldearen kontra hileko lehen astegoienean. 16 jardunaldiren ostean 35 puntu ditu Arratia Ak eta hirugarren postuan dago, igoera postuetan. Datorren partidua Urbietan jokatu dau Atxulaur A taldearen kontra hilaren 17an, 18:30ean. Gizonezkoen Arratia B taldeak hilaren 11n jokatu eban etxean Zaldia A taldearen kontra eta bana bardindu eban. Arratia taldeak deialdi berezia egin eban etxekoak animetako, denporaldi honetan kostata lortzean dabiz puntuak eta. Zaleek erantzun ona

emon eben. Kanpokoak aurreratu ziran 22. minutuan baina 89. minutuan bardinketea lortu eban Arratia Bk Mikel Oruek sartutako golari esker. Aurreko partidua 2-0 galdu eban Arratia Bk Ermua A taldearen kontra etxetik kanpo hileko lehen astegoienean. 16 jardunaldiren ostean 12 puntu ditu Arratia Bk eta hamabosgarren postuan dago. Datorren partidua etxetik kanpo jokatu dau Indartsu taldearen kontra hilaren 17an, 15:30ean.

Lemoako Harrobi

Lemoako Harrobi taldeak hilaren 10ean jokatu eban etxean Montefuerte A taldearen kontra eta 1-0 irabazi eban. Etxekoak gola 86. minutuan heldu zan eta Gorka Izkarak sartu eban. Aurreko partidua 1-2 irabazi eban Lemoako taldeak Etxebarri A taldearen kontra hileko lehen astegoienean. 16 jardunaldiren ostean 34 puntu ditu Lemoako Harrobik eta laugarren postuan dago. Datorren partidua etxetik kanpo jokatu dau Lekeitio A taldearen kontra hilaren 17an, 18:30ean.



Gizonezkoen Arratia A taldea.



irabazi dodaz baina momentuko baldintzak dira eta ez jatan eguna ondo urten". Halanda be, azpimarratu dau, "ez da Espainiakoa bakarrik balorau behar, denporaldi osoa

baino". Izan be, lasterketa bi kenduta, danetan igon da podiumera eta hamaika irabazi ditu: "Pentsaezina zan aurreko urtekoa errepikatutea baina hobetu egin dot, garaipen bi gehiagoz".

KONTZERTUA

Ane Han taldearen
"itzulerea" Kotxepinen

Lasarte Aretoan izandako arrakastearen ostean taldea Kotxepinera bueltauko da ia lau urteren ostean.

Asier Abrisketa

Ane Han taldeak *Itzulera(k)* diskoaren hirugarren aurkezpen kontzertua egingo dau, Igorre eta Durangoko Azokakoaren ostean, Ane Goienetxe taldeburu eta abeslariaren jaioterrian, Lemoan. Urtailaren 23an, 20:00etan hasiko da kontzertua Kotxepin Kultur Etxean. "Esan daigun itzulera bat dala, leku bardinera eta jente bardinagaz", azaldu dau Goienetxek BEGITUN, izan be, Ane Han taldea lemoan aurkeztu zan 2022ko maiatzean. Urte horretako garagarrrilean baina, kotxe istripu larria izan eban lemoaztarrak eta taldearen ibilbidea gelditu egin zan. Oin, abeslaria errekupeaut eta taldea handituta, prozesu horrer men egiten deutan *Itzulera(k)* diskoagaz dabil bueltetan oholztetara.

Zemendiaren 29an, Igorreko Kultur Etxean egin zan diskoaren aurkezpen kontzertua. Goiene-

txeren esanetan, "emozino aldetik asko suposatuten eban" publikoki eta eszenetokian barriro agertuteak. Hunkituta egon arren, "aurrera eroan ahal" izan ebela adierazo dau BEGITUN: "Zoragarria izan zan Lasarte Aretoan gertatu zan dana". Bereziki, jasotako "harrrera, babes eta berotasuna" eta "jenteagaz egon eta besarkadak emoteko" aukerea azpimarratuten dauz abeslariak.

Esan moduan, Lemoakoa be izango da beste "itzulera bat": "Berezia izango da zentzu askotan, ni Lemoakoa nazelako eta nire herrian aurkeztutea, inguruko jenteagaz, betikoakaz... oso polita izango dalakoan nago". Urtilaren 23rako "oso gogotsu" dagoala baieztatu dau Goienetxek eta Endika Parra, Unai Santos, Amaia Izarzugaza, Nikita Shemyakin eta Ander Gorostiola taldekideakaz batera, Igorren modura, barriro be giro "zoragarri" bat sortutera urtengo da Kotxepinako oholztara.



BERTSOLARITZEA

Musika elektronikoa eta bertsoak Igorren

Asier Abrisketa

Igorreko Lasarte Aretoak aparteko bertso-saioa hartuko dau urtailaren 24ean, izan be, 20:00etatik aurrera gaur arte bateraezinak izan diran bertsoa eta musika elektronikoa bateratuko ditu. *Itzali eta Piztu* izenpean, urrietan estreinau zan emonaldi honetan reggaeton, reggae, balada, cumbia eta pop doinuak bat-bateko bertsoakaz buztartuten dira. Horrezaz gainera, bertso-doinutegi tradizionalaren ondarearen parte diran doinuak be bersionauko dabez musika elektronikoaren birtarte, erritmo barrietara ekarriz

eta ahots efektuak baliatuta.

Ekimenak hamaika bertsolariko taldea dauka eta Igorren hiru egongo dira. Miren Artetxe lasartearra, besteak beste, 2021ean Xilaba Bertsulari Xapelketako azpitxapelduna eta 2003an Nafarroako zazpigarren izandakoa; Oihana Bartra bilbotarra, Bertsolari Txapelketa Nagusian zein Bizkaikoan eskarmentu handikoa; eta Haizea Arana eskoriatzar gaztea. Musikari lanetan barri, Libe Goenaga eta Manex Pagola egongo dira, Aner "Euzkitze"-gaz batera proiektuaren bultzatzaileak diranak. Gai-jartzaile moduan oster, Ainhoa Larretxea ibiliko da Igorreko saioan.

KONTZERTUAK

Maiatzaren 29tik 30era egingo da aurtengo Areatza Musik & Beer

Musikea, garagardao artisaua eta gastronomia buztartuko dauzan jaialdiaren aurretik, Garenan be egingo da saboreak eta esperientziak buztartuteko ekimena maiatzaren 28an.

Asier Abrisketa

Areatza Musik & Beer nazinoarteko musika eta garagardaoaren jaialdia bederatzigarren ediziora helduko da aurtan, eta antolakuntzeak aurreratu dauanez, maiatzaren 29an eta 30ean, bariku-zapatuan, ospatuko da. Musika zaleentzako hitzordu finkatua bihurtuta, jaialdiak laster emongo dauz jakitera aurtengo kartela osotuko dabentaldeetako batzuk, eta barriro be kalidadezko proposamenak batuko dirala ziurtatu dabe antolakuntzatik.

Musikeaz gainera, garagardaoak be betiko garrantzia izango dau, jaialdiaren oinarrietako bat izanik. 2024an lehenengoz Basque Beer alkarteak parte hartu eban oin dala urte bira arte babesle nagusietakoa izan zan Basqueland Brewing-egaz batera eta Euskal Herriko garagardao artisaua dastatzeko aukerea izango da. Horrezaz gainera, txoko gastronomikoa be egongo da Kallar-

tean gunean, foodtruck eta postu ugarigaz.

Bestalde, BEGITUK jakin ahal izan dau garagardao eta janari buztarketea egingo dala aurtan barriro. Igaz Garena jatetxean estreinau zan ekimena arrakatsua izan zan, eta aurtan be egingo da maiatzaren 28an, saboreak eta esperientziak buztartzeko asmoz.

Jaialdiak gune nagusi bi izango ditu. Gudarien Plazan egongo da eszenaleku nagusia, eta bertan ospatuko dira arrastietako kontzertuak; gainera, karpa handia

ipiniko da plazan. Kallartean gunean, barri, zapatu goizeko eta eguerdiko kontzertuak izango dira, jatekoa eta azokatxo berezi bategaz batera, giro lasaigo eta familiarra eskainiz.

Holan, Areatza Musik & Beer jaialdiak musikea, garagardao artisaua eta gastronomia batuko ditu beste behin, herria girotuz eta bisitari zein herritarrentzako plan erakargarria eskainiz. Kartelaren lehenengo izenak iragar-teko zain, maiatzaren amaierak badauka daborduko data gorritz marketako moduko hitzordua.



BERTSOLARITZEA

Hilaren 18an egingo da Zeanuriko bertso jaialdia

Arzallus, Egaña, Euzkitze, Ibarzabal, Iturriaga eta Martin egongo dira aurtan hogeta bigarrenegaz ospatuko dan bertso-saioan.

Asier Abrisketa

Zeanuriko Bertso Eskoleak antolatuta, urtailaren 18ko domekan, herriko frontoiak hogeta bigarren urtez hartuko ditu inguruetak bertsozaleak eta punta-puntako bertsolariak. Saioa 18:00etan hasiko da eta sarrerak egunean bertan salduko dira, ordubete lehenagotik hasita. Aurtan be, sei izango dira Zeanuriko oholztara igongo diran bertsolariak: Aner Peritz "Euzkitze", Amets Arzallus, Andoni Egaña, Nerea Ibarzabal, Unai Iturriaga eta Alaia Martin.

Honeen artean dagoz Bertsolari Txapelketa Nagusiko irabazle bi, Andoni Egaña lautan

(1993, 1997, 2001 eta 2005ean) eta Amets Arzallusek behin

(2013an), bien artean lurraldeko zein bestelako txapel ugari batuten dabezanak. Nerea Ibarzabal, BTNko finalista izan eta Bizkaiko txapel bi (2021 eta 2023an) daukaz; Unai Iturriaga, BTNko finalista seitan izan eta Bizkaiko txapel biren (1994 eta 1996an) jaube; Alaia Martin, Txapelketa Nagusiko finalista behin eta Gipuzkoako irabazle beste behin (2024an) izandakoa; eta Aner Peritz "Euzkitze", gazteena eta 2024ko Gipuzkoako Txapelketako finalista izandakoa, be egongo dira saioan.



BARIKU TXIKI

El Tendereteren txotxongilo ikuskizunak girotuko dau Dimako Bariku txiki urtailaren 16an

Asier Abrisketa

Diman hileon be egongo da Bariku txiki, umeentzako ekintza kulturalak egiteko ekimenaren beste jarduera bat, hilaren 16an. Oingoan, 30 urtetik gorako esperientzia daukan El Tenderete txotxongilo konpainia bilbotarra egongo da Abaroan, 18:00etatik aurrera, *Hamaika gatazka* piraten istorioagaz. El Tenderete konpainia istorikoa da txotxongiloen munduan eta Jose Ignacio Andino, Lito eta Manya Fernandez dira harietatik tiraka ibiliko diranak.

Hamaika gatazka obrea bost urtetik gorakoentzako ikuskizuna da eta bertan, pirata bi latorrizko lata batzutan biziten dabiz euren txalupea ondoratu ostean, baina lasai bizi dira. Halako batean, aberats batek euren leku idilikoa topau, honeek bota eta inperio komertzial bat eregiko dau. Baina protagonista biek, lagunak egingo dabez euren igesaldian eta holan, gizon gaiztoari aurre egiteko gai izango dira.

BAKARRIZKETEA

Antton Telleriak *NININI* umorezko bakarriketea dakar Igorrera

Hilaren 17an, 20:00etan taularatuko dau bere bigarren komedia ikuskizuna Lasarte Aretoan.

Asier Abrisketa

Nekatutak-ek Euskal Herriko aretoetan izan eban arrakastearen ostean, Antton Telleria umoregilea bere bigarren *stand up comedy* ikuskizuna aurkeztuteko biran dago murgilduta: *NININI*. Hileon, urtailaren 17an, Igorreko Kultur Etxean egongo da Telleria hau aurkeztuten, 20:00etatik aurrera. Telleriak berak dino, ikuskizun honek ez dauakala zerikusirik aurrekoagaz: "Ikuskizun hau desbardina da, konkretuki, okerragoa".

Telleriak berak dinoanez, bakarriketea hau "egolatriari eginiko oda bat da". Holan, Telleriak bere buruaz egingo dau berba etenbarrik. Halanda be, "zintzotasun ariketa" bat be ei da, bere burua biluztuko dau-ta: "Metaforikoki eta metaforikoki bakarrik, danon hobebeharrez". Umorigileak bere buruagaz daukan harremanaz, bere izen eta izanaz, bere bikotekideaz, komikoa izateaz eta bertolaria izateaz egingo dau berba, besteak beste. Webgunean mundu guztia konbidetan dau emonaldia ikustera, beragaz barre egitera edo berari barre egitera bada be.



KOTXEPIN

Umeentzako antzerki eta ipuin kontalari bana Kotxepinen

Urtailaren 28an, Lur Kortak ipuinak irakurriko ditu 18:30etik aurrera eta hilaren 31n, Mar-Mar konpainiak *Arrainak bihotzean* antzezlan taularatuko dau Lemoan, 18:30ean.

Asier Abrisketa

Umeak izango dira protagonista Lemoako Kotxepin Kultur Etxean urtail amaieran, izan be, lemoaztar txikerrenentzako eta familientzako jarduera bi dagoz antolatuta. Lehenengoa hilaren 28an egingo da, eguaztena, eta Lur Korta kontalariak hiru urtetik gorakoentzako ipuinak kontauko ditu bere *Ipuinekin jolasean* emonaldian. Barikuan barriz, Irene Hernando, Aritz Rodriguez eta Maitane Serranok *Arrainak bihotzean* antzezlan taularatuko dabe, 4 eta 11 urte bitarteko umeentzako.

Lur Korta Redinek betidanik izan dau istorioak kontau, antzeztu eta biziteko grina eta aktore, ipuin kontalari eta antzerki irakaslea izan da. *Ipuinekin jolasean* saioan Auroritaren istorioak kontauko ditu, emonaldi parte-hartzailean. "Aurorita bere

maleteagaz doa herriz herri, liburutegietan murgilduta ipuinak kontetan. Gaur be ipuin desbardinak kontauko ditu gerturatu ten diran umeen laguntzeagaz. Badakizu zer daroan maleta gorrian?", dino sinopsiak.

Barikuko saioan barriz, Mar-Mar Teatro konpainiaren *Arrainak bihotzean* antzezlan egongo da ikusgai Kotxepineko aretoan. Bertan, aktoreek eta txotxongiloek konpartiduten dabe agertokia, Leire Bilbaoren poemetan oinarritutako istorioa gorpuztuten. "Martak ez daki non bizi diran bildurrak, eta lasai bizi da herri polit baten. Bere aita marinela da eta portuan, zain dagoan egun gris baten, ekaitz batek uretara botaten dau. Itsas hondoak behartutako bidaia bat hasiko dau, horretarako arrainen eta bildurren hizkuntza ikasi behar badau be", dino sinopsiak.

DUNBA

Euskerearen Eguna Lemoako eskolan

Ixone Fernandez Bilbao eta Malen Ruiz Aldasoro

Euskerearen Eguna oso berezia da guretzako, euskaldun garenontzako egun oso garrantzitsu bat, gure hizkuntzearen alde aldarrikatuten dogun eguna dalako.

Lemoako Euskera Batzordekoak, zelango garrantzia daukan ulertuteko, hainbat

ekintza prestatuten doguz. Guk uste dogu euskerea aurrera erateko guztion partaidetzea behar dogula, eta horretarako Txapa Lehiaketea egiten dogu, hau da, LH6, DBH1 eta DBH2ko ikasleek euskereagaz zerikusia daukan marrazki bat egiten dabe, eta irabazlearen marrazkia ikastetxe osoko kideok paparrean erooten dogu.

Bestalde, gure ikastetxean euskerea bultzatuteko maskota bat daukagu, Harrotxu. Harrotxuk urte asko daroaz eskolako maskotea izaten eta bere eginkizuna da eskolako ikasle guztiek euskeraz berba egitea. Egunean zehar txapakaz batera txupatxusak banatuten dauz LH eta DBHko ikasle guztientzako.

Guk oindino daukagu gogoan



txikitan zelango ilusinoa egiten euskun Harrotxu ikusteak, egun guztia egoten ginan bere zain.

Gure ustez, egun honetako gauzarik politena, ikastetxeko txikienak euskeraz berba egiten entzutea da, eurak diralako gure hizkuntzea bizirik mantenidu ahal daben bakararak.



AGENDEA

URTAILAK 16
ARANTZAZU

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

AREATZA

08:00retatik 21:00etara, ikasgela egunero udaletxean zabalik.

19:00etan, *Areatza eraikitzen* solasaldia eta luntxa; Josu Basozabal (Areatzako EAJren bozeroalea) eta Begoña Pedrosa (Eusko Jaurilaritzako Hezkuntza sailburua). Udaletxeko aretoan.

21:00etan, The Yee-haws eta Foterie taldeen kontzertuak. Bixer tabernan.

Martin Ortega ilustratzailearen uri-marrazketa ikastarorako izen-emotea 617 332 691 telefonoan edo *martin@estudioduende.com* helbidean. Zezeiletik aurrera martitzenetan, 18:00etatik 20:00etara; 50 euro.

BEDIA

Martiaren 14an izango dan Kolazino Mendi Eguneko lasterketarako izen-emotea zabalik martiaren 1era arte, *sportmaniacs.com* helbidean.

Urtailaren 16ra arte, Baqueirako eski urtekerarako izen-emotea (zezeilak 20tik 22ra izango da urtekerea). Bebetekan 16:30etik 19:30era.

DIMA

16:30etik 19:30era, astelehenetik eguenera liburutegia zabalik.

Urtailaren 21era arte, 16-29 urte bitartekoentzako hilaren 24ko Escape Room-erako izen-emotea *udalekuekdimesten@gmail.com* helbidean.



18:00etan, Bariku txiki: El tenderete konpainiaren *Hamaika gotazka* txotxongilo ikuskizuna. Abaroan.

IGORRE

08:00retatik 22:00etara, ikasgela egunero zabalik Kultur Etxean.

Astelehenetik barikura liburutegia zabalik. Astelehenetik eguenera 16:00etatik 20:30era eta eskola opor egun eta barikuetan 09:00etatik 13:30era.

18:00etan, mahai-ingurua arriskuan dagozan Matraillu, Errota, Guardetxea eta Kiñu Gaztetxeko kideakaz. Ostean, Mangual eta Pantx Records-en pintxadak. Kiñu Gaztetxean.

LEMOA

08:00retatik 21:00etara, ikasgela egunero Kotxepinen zabalik.

16:30etik 19:30era, astelehenetik

barikura Udal Liburutegia zabalik.

UBIDE

08:00retatik 21:00etara, Lopena espazioa zabalik egunero.

Dorsalak amaitu arte, maiatzaren 30ean jokatuiko dan Ubidestroil Trail 2026an izen-emotea zabalik *kronoak.com* webgunean.

Pastuak ordaintzeko epea zabalik hilaren 29ra arte. Aurkeztu beharreko agiriak: Aldundiko kanpaina, OCAko zerrenda eguneratua eta zaldi eta behorren kartilea. Udaletxean.

ZEANURI

Batxiler eta unibersidadeko ikasleentzat goizeko 08:00retatik gaueko 21:00ak arte ikasgela zabalik egunero. DBHko ikasleentzat, astelehenetik eguenera 17:00etatik 19:00etara.

ZEBERIO

Liburutegia zabalik. Astelehen, eguen eta barikuetan 16:30etik 19:30era, martitzenetan 16:30etik 18:00etara eta eguaztenetan 17:00etatik 20:00etara.



18:30ean, guraso, tutore eta

hezitzaileentzako *Drogen eragina gure seme-alabengan* berbaldia, Koldo Callado EHuko irakaslearen eskutik. Plazako Ermita Zaharrean.

URTAILAK 17
ARTEA

12:30ean, *Venezuela: Herriaren burujabetza eta geopolitika* solasaldia Zulay Gil, Gonzalo Fernandez, Efredn Borges eta Nikole Ziarrustagaz; gero, alkartasun argazkia eta Venezuelari kantaldia. Herriko Bentan.

IGORRE

17:00etatik aurrera, Urte Barri Oi musika jaialdia. Kiñu Gaztetxean.



20:00etan, Antton Telleriaren *NININI* umorezko bakarrikzketea. Lasarte Aretoan.

ZEBERIO

San Anton eguna Barañaon. 12:00etan, mezea eta ostean barauskarria.

URTAILAK 18
IGORRE

Zinea. 17:00etan, *Tom y Jerry: Aventura*



Indarkeria bikarioa langai
Lasarte Aretoan

Urtailaren 16an, 19:00etan, *No estas loca: La verdad sobre la violencia vicaria* dokumentala proiektauko da Igorreko Kultu Etxean. Bertan, an-drei min egin edo kontrolatuko helburuagaz, gizonen seme-alabengan eragiten daben indarkeria kasuak aztertuten dira. Dokumentala Ma-ria Bestar zinegileak egin dau eta bertan, biktima zein profesionalen -epaileak, psikologoak, kazetariak eta pediatrik- berrogei testigantza baino gehiago jasoten dira. Parte hartu dauan biktimetako bat da Iru-ne Costumero igorreztarra eta zuzendariagaz zein beste profesional eta biktima batzukaz, solasaldia egingo da proiektzinoa amaitu ostean.

en el tiempo; 19:30ean, *Aro berria*. Lasarte Aretoan.

UBIDE

18:00etan, Korrikaren gaineko bilerea. Ortuzarreko lokalean.

ZEANURI

18:00etan, Zeanuriko bertso jaialdia: Aner "Euzkitze", Amets Arzallus, Andoni Egaña, Nerea Ibarzabal, Unai Iturriaga eta Alaia Martin. Frontoian. Sarrerak salgai 17:00etatik aurrera.

URTAILAK 20
AREATZA

19:00etan, Jai Batzordearen batzarra. Udaletxeko Pleno Aretoan.

IGORRE

18:00etan, Aratusteak antolatze-ko batzarra. Kultur Etxean.

URTAILAK 21
IGORRE

17:30etik 19:00etara, *Norbere zaintzarako estrategiak* ikastaroaren bigarren saioa: *Jarduera pozgarriak*. Kultur Etxean.

URTAILAK 23
ARTEA

19:00etan, Irakurleen Txokoa: Sally Rooney-ren *Jende normala* liburua. Kultur Etxean.

LEMOA

20:00etan, Ane Han-en kontzertua, *Itzulera(k)* diskoaren aurkezpena. Kotxepin Kultur Etxean.

URTAILAK 24
DIMA

11:30ean, 16-29 urte bitartekoentzako Escape Room-a: "Zientzialari talde batek makina bat eraiki dau atzen 90 urteak ezabatuteko; nork suntsitu ahalko dau denporea amaitu baino lehen?" Gaztelekuan. Izen-emotea *udalekuekdimesten@gmail.com* helbidean urtailaren 21era arte.

IGORRE

20:00etan, *Itzali eta Piztu* bertso-saio elektronikoa: Miren Artetxe, Oihana Bartra eta Haizea Arana bertsolariak eta Manex Pagola eta Libe Goenaga musikariak. Lasarte Aretoan.



URTAILAK 25
ARTEA

13:30ean, Amann & Long John bikote akustikoaren *Matches & Gasoline* kontzertua. Herriko Bentan.

19:00etan, Jai Batzordearen batzarra. Kultur Etxean.

IGORRE

Zinea. 17:00etan, *200% Wolf: Pequeño gran lobo*; 19:30ean, *Valor sentimental*. Lasarte Aretoan.

URTAILAK 28
IGORRE

17:30etik 19:00etara, *Norbere zaintzarako estrategiak* ikastaroaren hirugarren saioa: *Zure loa zaintzeak ongizatea sortzen du*. Kultur Etxean.

LEMOA

18:30ean, Lur Korta Redin ipuin kontalariaren *Ipuinekin jolasean*. Kotxepin Kultur Etxean.

URTAILAK 30
IGORRE

19:00etan, Arantzarteren 50. urteurren-eko bideoaren proiektzinoa. Igorreko Kultur Etxean.

URTAILAK 31
IGORRE

18:30ean, Arantzarteren Gabonetako jantzaldia. Kiroldegiko frontoian.

LEMOA

18:30ean, Mar-Mar Teatro konpainiaren *Arrainak bihotzean* umeentzako antzezlan- a. Kotxepin Kultur Etxean.

ZEZEILAK 1
AREATZA

17:30ean, *Irabazi arte!* telesailaren 5. denporaldiko lehen atalaren estreinaldia. Udaletxeko Areto Nagusian.

DIMA

17:30ean, *Irabazi arte!* telesailaren 5. denporaldiko lehen atalaren estreinaldia. Eskolako kamanan.

IGORRE

Zinea. 17:00etan, *Bob Esponja: Una aventura pirata*; 19:30ean, *Rondallas*. Lasarte Aretoan.

ZEANURI

18:00etan, *Irabazi arte!* telesailaren 5. denporaldiko lehen atalaren estreinaldia. Kultur Etxean.

ZEZEILAK 2
IGORRE

18:00etan, *Irabazi arte!* telesailaren 5. denporaldiko lehen atalaren estreinaldia. Lasarte Aretoan.

KOMIKIA

Kailo
Ren



IRAGARKI LABURRAK

DANERIK

AUTOA KONPARTIDUTEA

Leioako campusera doazen Arratiako EHUKo ikasleen bila nabil kotxea eta gastuak konpartiduteko. Telefonoa 690 307 910.

GELA BEHAR DOT ALOKAIRUAN

Pisu konpartidu baten, persona bakar batentzako gela bat behar dot alokairuan. Telefonoa: 642 912 390.

MAHAIA OPARITZEN DOT

Eskola adineko umeentzako mahai aproposa oparitzen dot. Telefonoa 630 363 971.

KIMIKAKO KLASEAK HARTU GURA DODAZ

Bigarren Batxilergoko kimika klaseak euskeraz jasoteko nonoren bila nabil abuztuaren hasieratik, ordutegi malguagaz, gero, klaseak urte osoan zehar izateko asmoz zapatuetan ordu biz. Deitu: 638 889 851.

GITARRA KLASEAK EMOTEN DODAZ

Hari's Rock School. Gitarra klaseak emoten dodaz adin guztietarako. Igorreko Kiñu Gaztetxean. Interesdunek deitu 664 303 528 telefonora edo

idatzi a.harillo.gracia@gmail.com helbidera.

TABERNARI EUSKALDUNEN BILA GABIZ

Axular Herriko Tabernan tabernari bi behar dira astegoienerako. Interesdunek tabernan bertan galdetu, axularke@gmail.com helbidera idatzi edo telefonoz deitu: 94 673 70 92.

BIZIKLETEA SALGAI

Umeentzat, koloretsua, Dora Esploratzailearen marrazkiekaz. Lauzpabost urteko umearentzat. Errobera txikerrak, aurrean zestillea eta atzean pelutxearentzat kutxa. Egoera eta itxura onean. Eskatu edo ikusteko deitu: 670 825 753.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@begitu.eus helbidera. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1 Gontzal Mendibilek emondako sarrera bi hilaren 21eko Arriagako 50 urte kantagintzan kontzerturako.

Mikel Urkixo (Artea)



2 Zeanuriko Udalak emondako bina sarrera hilaren 18ko Zeanuriko bertso jaialdirako.

Nahia Aurrekoetxea (Dima)
Miren Garbiñe Etxebarria (Lemoa)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 23 urte eta ehundaka lagun.

94 673 90 13/649 979 115 | www.begitu.eus | begitu@begitu.eus



Ipini zure iragarkia Begitun 649 979 115 inigoirua@begitu.eus



BEGITU



IPINI ZURE IRAGARKIA BEGITUN

Informazinoa: **649 979 115**
eta inigoirua@begitu.eus

URRUN IRISTEKO, GERTU.

*Zatoz eta ezagutu
Andramari
Zornotzako ikastola*



- 0tik 18 urtera arte.
- Garraio zerbitzua Arratiatik.
- 2026/27 matrikulazioa: otsailaren 2tik 13ra.

**ANDRAMARI**
ZORNOTZAKO IKASTOLA

**IKASTOLAK**

Larrea auzoa z/g 48340 Zornotza
94 673 29 50 - zornotza@ikastola.eus
www.andramarizornotzakoikastola.eus